

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzaren 1861/2016 Ebazpena, urriaren 6koa, agintzen duena Arabako Foru Aldundiaren sailek hainbat erakunde eta elkarterekin izenpetutako lankidetzak hitzarmenen laburpenak argitaratzeko**

Arabako Foru Aldundiaren sailek behar bezala sinatutako zenbait lankidetzak hitzarmenen kopia helarazi zaio Diputatu Nagusiaren Saileko Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrek Atenditzeko Zerbitzuari.

Kontuan hartuta horretarako zer xedatzen duten azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 6., 7. eta 8. artikuluetan, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 79. artikuluan, eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 11ko 129/1993, urriaren 29ko 95/1996 eta maiatzaren 27ko 53/1997 foru dekretuek.

Ikusita lehen aipatutako lege aginduak eta aplikatu beharreko gainerakoak, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenaren, 102. artikuluari eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 29ko 95/1996 Foru Dekretuaren hirugarren idatz-zatiari jarraituz dagozkidan eskumenak erabiliz, honako hau

#### EBAZTEN DUT

Lankidetzak hitzarmen hauek ALHAOn argitaratzeko agintzea:

#### **IZENPETZE EGUNA: 2016ko ekainaren 7a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Beatriz Artolazabal Albeniz, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatua.

Beste aldetik: Santos Gil Martinez, Elizbarrutiko Caritaseko zuzendaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Lurralde Historikoan gizarte ekintzak koordinatzeko lankidetzak hitzarmena luzatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 42.403,- euro.

Indarraldia: 2016ko abenduaren 31.

#### **IZENPETZE EGUNA: 2016ko ekainaren 7a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Beatriz Artolazabal Albeniz, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatua.

Beste aldetik: Estibaliz Arnaiz López, Espainiako Gurutze Gorriko Arabako Batzordeko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: landa eta tokiko gizarte jarduerak koordinatzeko lankidetzak hitzarmena luzatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 42.403,- euro.

Indarraldia: 2016ko abenduaren 31.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko ekainaren 14a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Beatriz Artolazabal Albeniz, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatua.

Beste aldetik: Alfredo Santamaría Santaolalla, "Sartu-Álava" Birgizarteratze Elkarteko legezko ordezkaria.

Hitzarmenaren xedea: ahultasun egoeran dauden arabarrak herrian bertan gizarteratzeko plan bat garatzeko lankidetzaz hitzarmena luzatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 203.846,76 euro.

Indarraldia: 2016ko abenduaren 31.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko ekainaren 14a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Beatriz Artolazabal Albeniz, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatua.

Beste aldetik: Luis Miguel Martínez López, "Aspace" Garun paralisiaren eta antzeko gaitzen Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: garun paralisia eta/edo antzeko alterazioen bat duten pertsonen eta haien familiei laguntza psikosoziala emateko zerbitzua eskaintzeko lankidetzaz hitzarmena luzatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 40.000,- euro.

Indarraldia: 2016ko abenduaren 31.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko ekainaren 14a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Beatriz Artolazabal Albeniz, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatua.

Beste aldetik: Maite Fonseca Hernández, "Aspahafoha" Arabako haur onkohematologikoen gurasoen elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: minbizia duten Arabako umeen familiekin esku hartze psikosozialeko programak abiarazteko eta garatzeko lankidetzaz hitzarmena luzatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 30.250,- euro.

Indarraldia: 2016ko abenduaren 31.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko ekainaren 14a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Beatriz Artolazabal Albeniz, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatua.

Beste aldetik: Antonio Moraga Martínez, "Ascudean" mendeko pertsonen eta familia zaintzaileen elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: elkartearen beraren jardueren garapenerako lankidetzaz hitzarmena luzatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 37.181,- euro.

Indarraldia: 2016ko abenduaren 31.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko uztailaren 27a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Beatriz Artolazabal Albeniz, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatua.

Beste aldetik: Josu Izuzkitza Larrañaga, Down Araba – Isabel Orbe Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Enebiaz programa (bizitza independenterako entrenamendua) gauzatzeko lankidetzaz hitzarmena luzatzea.

Finantzaketa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: 55.485,- euro.

Indarraldia: 2016ko abenduaren 31.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko abuztuaren 3a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: María Pilar García de Salazar Olano, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua.

Beste aldetik: Gregorio Rojo García, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialeko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: enpresa proiektu berriei laguntza emateko zerbitzu integraleko ekintzak optimizatzea; zerbitzu horren faseak eta ekintzak bi lan arlotan multzokatu dira: enpresa ideia eta sendotze bidea.

Ekarpenak: 65.000,- euro, Arabako Foru Aldundiaren 2016ko ekitaldirako aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: izenpetzen denetik 2016ko abenduaren 15era arte.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko abuztuaren 3a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: María Pilar García de Salazar Olano, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua.

Beste aldetik: Gregorio Rojo García, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialeko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: enpresei nazioartekotzeari eta lantalde teknikoari buruzko argibideak eta aholkuak emateko zerbitzua koordinatzeko ekintzak optimizatzea.

Ekarpenak: 60.000,- euro, Arabako Foru Aldundiaren 2016ko ekitaldirako aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: izenpetzen denetik 2016ko abenduaren 15era arte.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko abuztuaren 3a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: María Pilar García de Salazar Olano, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua.

Beste aldetik: Nuria Gisbert Prejo, CIC Energiguneko zuzendari nagusia.

Hitzarmenaren xedea: erakunde bakoitzari modu osagarrian bere helburuak betetzeko dagozkion ekintzak optimizatzea, genero ikuspegia sartuta.

Ekarpenak: 25.000,- euro, Arabako Foru Aldundiaren 2016ko ekitaldirako gastuen aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: izenpetzen denetik 2016ko abenduaren 15era arte.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko abuztuaren 3a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: María Pilar García de Salazar Olano, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua.

Beste aldetik: Esther Unceta Barrenechea, FOARSE Enpresen Gizarte Erantzukizunerako Arabako Foroko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: erakunde bakoitzari modu osagarrian bere helburuak betetzeko dagozkion ekintzak optimizatzea, genero ikuspegia sartuta.

Ekarpenak: 3.500,- euro, Arabako Foru Aldundiaren 2016ko ekitaldirako gastuen aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: izenpetzen denetik 2016ko abenduaren 15era arte.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko abuztuaren 3a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: María Pilar García de Salazar Olano, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua.

Beste aldetik: Pascal Gómez Pérez de Zuazagoitia, SEA Arabako Enpresarien Sindikatuko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: erakunde bakoitzari modu osagarrian bere helburuak betetzeko dagozkion ekintzak optimizatzea, genero ikuspegia sartuta.

Ekarpenak: 40.000,- euro, Arabako Foru Aldundiaren 2016ko ekitaldirako gastuen aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: izenpetzen denetik 2016ko abenduaren 15era arte.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko abuztuaren 16a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Igone Martínez de Luna Unanue, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua.

Beste aldetik: Ernesto Argote Roa, Trebiñuko Konderriko Udaleko alkatea.

Hitzarmenaren xedea: "Saretzen" programak eragindako gastuak finantzatzea.

Indarraldia: izenpetzen denetik 2016ko abenduaren 31ra arte.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko irailaren 1a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Ramiro González Vicente, Arabako diputatu nagusia.

Beste aldetik: Gorka Urtaran Agirre, Gasteizko Udaleko alkate-lehendakaria, tokiko gobernu batzarrari laguntzeko organoaren titularrak lagunduta.

Hitzarmenaren xedea: Altsasutik Mirandara doan burdinbidearen korridorea aprobetxatuz tranbia irtenbidea emateari buruzko azterlana egitea.

Indarraldia: izenpetzen denetik hitzarmen honen xedea den azterlana amaitu eta entregatu arte; eta, betiere, 2016ko abenduaren 31ra arte.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko irailaren 6a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Igone Martínez de Luna Unanue, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua.

Beste aldetik: Jon Etxeberría Cruz, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia.

Hitzarmenaren xedea: lankidetzaren esparru bat definitzea eta zehaztea, euskararen erabilera normalizatzeko zenbait eginbehar egiteko Araban.

Indarraldia: izenpetzen denetik aurrera, mugarik gabe.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko irailaren 7a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Eduardo Aguinaco López de Suso, Nekazaritza Saileko diputatua.

Bestetik: Consuelo Auzmendi Jimenez, Asparreneko Udaleko alkatea.

Bestetik: Javier Martínez de Ordoñana Ruiz de Luzuriaga, Eginoko Administrazio Batzarreko errejidore-batzarburua.

Bestetik: Felipe Jimenez Pérez de Villarreal, bere izenean eta Avícola Arbaraitz SL merkataritza sozietatearen ordezkari.

Bestetik: Ana María Inés Jimenez Marqués, bere izenean eta Avícola Tolosa SL merkataritza sozietatearen ordezkari.

Hitzarmenaren xedea: konpondu, egokitu eta hobetzea Eginotik Ziordiarako bidea, "Ziordia" izeneko, Arabako Foru Aldundiaren bideen erregistroan sartuta dagoena.

Indarraldia: izenpetzen denetik gauzatutako obrak onartu eta likidatu arte.

**IZENPETZE EGUNA: 2016ko irailaren 9a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Eduardo Aguinaco López de Suso, Nekazaritza Saileko diputatua.

Beste aldetik: Gorka Urtaran Agirre, Gasteizko Udaleko alkatea.

Hitzarmenaren xedea: landa bide sarea administratzeko jarduera eta proiektu materialak, teknikoak edo zerbitzuetakoak egitea.

Indarraldia: 2016ko abenduaren 31ra arte.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 24a

*Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria*  
**NEKANE ZEBERIO GANZARAIN**